

**SERANTES KULTUR ARETOA
AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN
ARTEZKARITZA KONTSEILUKO SAIOAREN AKTA**

2016ko UZTAILAREN 26ko SAIOA

Santurtziko udaletxearen batzorde aretoan, arestian aipatutako eguneko hamaikak direla, Autonomiadun Erakundearen Artezkaritza Kontseiluak ohiko bilera egin du, Presidente jaunak alde zurratik deituta. Bileran hurrengo hauek hartu dute parte:

Kontseiluburua: Danel Bringas Egilior jn.

Kontseiluko kideak:

Itsazain Ortolatxipi Ibañez jn., Eusko Abertzaleak Udal Taldea.
Cristina Senarriaga Rojo and., Eusko Abertzaleak Udal Taldea.
Jonatan Sánchez González jn., Sí Se Puede Santurtzi Udal Taldea.
Endika García Saez jn., Bildu Udal Taldea.
Luis Angel Urdiales Villanueva jn., Alderi Popularra Udal Taldea.

Zuzendaria: Carlos Moran Arostegi jn.
Kontu-hartzailea: José Miguel Paredes Cisneros jn.
Idazkari eskuordetua: José Fernando García Pañeda jn.

Kontseiluburu jaunak bilerari hasiera eman dio, eta deialdiaren zerrendako gaiak jorratzen hasi dira.

**1.- 2016ko MAIATZAREN 31ko OHIKO BILERAREN AKTA IRAKURRI
ETA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.**

2016ko maiatzaren 31n egindako ohiko saioaren akta lehenago igorri denez, ez da une horretan irakurri.

Kontseiluko kideek ez dutenez parte hartzeko txandan ezer esan, akordioa bozkatu dute:

Si Se Puede Santurtzi, Bildu eta Euskal Sozialistak udal taldekoen ordezkariak abstentzioa agertuta, Artezkaritza Kontseiluak 2016ko maiatzaren 31ko bileraren akta onartzea adostu du

**2.- AURREKONTUEN BETETZE-EGOERAREN BERRI EMATEA, 2016ko
EKAINAREN 30ean.**

Kontseiluburu jaunak autonomiadun erakundeak aurrekontuaren betetze-egoeraren berri eman du ekainera arteko datuak emanez (berau barne) eta alderdirik azpimarragarrienak nabarmendu ditu, Artezkaritza Kontseiluko kideei alde zurratik bidalitako dokumentazioarekin bat etorritik.

Ez denez gai honetan parte hartzerik egon Artezkaritza Kontseiluko kideek gaiaren berri izan dutela ulertu da.

3.- 2016ko KARMENGO JAIEI BURUZKO BALANTZEAREN AURKEZPENA

Kontseiluburu jaunak gaiari hasiera eman dio bereziki nabarmenduz jaiak behar bezala burutu direla eta aurreko urteetako eskema bera izan dutela. Horrela bada, hitza zuzendari jaunari eman dio eta honek datu nagusiak zabaldu ditu, hurrengo hauek hain zuzen: parte hartze ikaragarri handia egon da, bai antolakuntzan eta bai jardueretan, izan ere, 400.000 bat lagun izan dira jai-gunean ibili direnak, iaz baino gutxiago hasierako egunetako eguraldi txarra dela eta. Bestalde, egitarauan azaldutako ekitaldi guztiak garaiz eta behar bezala burutu dira. Aurrekontua, berriz, ez da aurrekusi bezala gauzatu, 445.000 euroko aurrekontutik 3.000 bat euroko aldea egon da eta.

Sánchez Fernández jaunak esan du datuen arabera, parte hartze txikiagoa egon dela, iaz baino %20 gutxiago hain zuzen eta hortaz, horren arrazoia aztertu beharko litzatekeela.

Segurtasunaz adierazi du trenbidea arriskutsua dela jaietan jendea bertan sartu eta gune horretan ibiltzen delako. Adibide moduan esan du horrelakoetan oso zaila litzatekeela bertara sartzea norbaiti laguntza eman behar izanez gero. Horrela bada, etorkizunean konponbideren bat topatu beharko da, hesiak jarri edo sarbidea eragotziko duen beste bideren bat topatu.

Horrez gain, Sánchez Fernández jaunak eskatu du komun kimiko gehiago jar ditzatela DYako boluntarioen gunetik hurbil, gaur egun gutxi daude eta.

Kontseiluburu jaunak erantzun dio esanez saiatu direla trenbidean ahalik eta jende gutxien sar zedila eta ahalik eta denbora gutxien eta gaineratu du sarbidea zaintzen jendea zegoela eta trenen joan eta etorririk, berriz, ez.

Sánchez Fernández jaunak esan dio Kontseiluburuak sarbidea kontrolatzeko jendea zegoela esaten duen arren, aurreko larunbatean inor ez zegoela edo baldin eta bazegoen egun horretan ez zirela zaintza lanak bete, eta hori kontuan hartzeko modukoa dela.

4. KONTSEILUBURUAREN GAIK

Kontseiluburu jaunak Sí Se Puede Santurtzi udal taldeak aurkeztutako mozioaren berri eman du, zeinetan eskatzen den herriko jaietan bertoko taldeek jotzea. Horrela bada, jakinarazi du gaia Artezkaritza Kontseiluko hurrengo bileran jorratuko dutela, Tokiko Gobernu Batzarrak bidali zuenerako saio honen gai-zerrenda dagoeneko eginda zegoelako.

5. GALDE-ESKEAK

Aurreko puntuan aipatutako mozioaz Sánchez Fernández jaunak argi utzi nahi izan du bere ustez saio honetan ez sartzeko emandako arrazoia ez dela nahikoa izan, Kontseiluburuak gaia premiazko bidearen bitartez ekar baitzezakeen, mozioa gai-zerrenda egin ondoren jaso bada ere, saioa hasi gabe zegoen eta.

Kontseiluburu jaunak erantzun dio esanez ez zitzaiola premiazkoa iritzi, datorren urteko jaiez ari delako.

Beste gairik izan ez denez, Kontseiluburu jaunak bilera amaitutzat eman du akta honen hasieran zehaztutako egunean, goizeko hamaikak eta hogeita minutu direnean. Eta nik, Idazkari Eskuorde naizen honek, hau guztiau ZIURTATU egiten dut.